



# AKTA

**ORGANOA:** Ohiko Osoko bilkura.  
**DEIALDIA:** Lehenengoa  
**EGUNA:** 2019/05/30  
**ORDUA:** 19:00 – 19:50  
**LEKUA:** Pleno aretoan.

**BERTARATUAK:**

Alberto Garro Uribe (EH Bildu)  
Saioa Bildosola Gerrikabeitia (EH Bildu)  
Rakel Gandiaga Irusta (EH Bildu)  
Iñigo Uribe Fundazuri (EAJ-PNV)  
Jose Luis Zelaia Basterretxea (EAJ-PNV)

**EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTE:**

Ana Rosa Arriaga Jaio (EH Bildu)

**EZ DIRA ETORRI:**

Ion Ander Barruetabeña Gerrikabeitia (EAJ-PNV)

**IDAZKARI – KONTUHARTZAILEA:**

M<sup>a</sup> Concepcion Mallea Madariaga.

1. Aurreko batzarreko aktaren onarpena.
2. Hainbat gestioen gaineko informazioa eman.
3. Arkeoa eta udalaren egoera ekonomikoaren berri eman.
4. Azkeneko batzarretik alkateak dekretuz hartutako erabakien berri eman.



## 5. Eskari-galderak.

### 1. AURREKO BATZARREKO AKTAREN ONARPENA.

2019ko martxoaren 28ko ohiko osoko bilkurako akta eta 2019ko maiatzaren 2ko ezohiko osoko bilkurako akta onartu dira aho batez.

### 2. HAINBAT GESTIOEN GAINEKO INFORMAZIOA EMAN.

Ondorengo gaiet buruzko informazioa eman zaie batzarkideei:

- Zearregiko putzu beltza.
- Simón Bolívar Museoa. Museoko lanpostua betetzeko hautaketa-prozesuari buruzko azken informazioa eta, lanpostua bete arte, zerbitzua eskainiko den era.
- San Juan jaietarako garbiketak.
- Azpiegiturak: bideak.
- Arkupe Taberna. Uda garaia.
- Udako ludoteka.
- Euskara: 2019ko kudeaketa plana.

### 3. ARKEOA ETA UDALAREN EGOERA EKONOMIKOAREN BERRI EMAN.

Ondorengo informazioa eman da: Aurrekontuko gastuen eta sarreren egoera, arkeo kontua eta diruzaintzako gerakinean dagoen saldo erabilgarria. Guzti hau 2019ko apirilaren 30era.



## INFORMAZIO EKONOMIKO-FINANTZIEROA

2019/04/30

### SARREREN EGOERA

KAPITULUAK	HASIERAKO AURREK.	ALDAKETAK	AURREKONTUA GUZTIRA	ESKUBIDE GARBIAK	EJEKUZIOA %
1. Zerga zuzenak	78.000		78.000	19.677	25 %
2. Zeharkako zergak	8.000		8.000	9	0 %
3. Tasak eta beste sarrerak	23.450		23.450	8.008	34 %
4. Transferentzi arruntak	588.430		588.430	171.228	29 %
5. Ondare sarrerak	2.250		2.250	1.126	50 %
7. Kapital transferentziak	69.000		69.000		0 %
8. Aktibo finantzieroa					
<b>Guztira</b>	<b>769.130</b>		<b>769.130</b>	<b>200.048</b>	<b>26 %</b>

### GASTUEN EGOERA

KAPITULUAK	HASIERAKO AURREK.	ALDAKETAK	AURREKONTUA GUZTIRA	ESKUBIDE GARBIAK	EJEKUZIOA %
1. Pertsonal gastuak	252.950		252.950	82.738	33%
2. Gastu arruntak	228.700		228.700	35.179	15%
3. Gastu finantzieroa	200		200	44,49	22%
4. Transferentzi arruntak	95.670		95.670	21.474	22 %
6. Inbertsioak	156.975		156.975	194	
9. Pasibo finantzieroa	34.635		34.635	8.658	25%
<b>Guztira</b>	<b>769.130</b>		<b>769.130</b>	<b>148.286</b>	<b>19%</b>

#### 4. AZKENEKO BATZARRETIK ALKATEAK DEKRETUZ HARTUTAKO ERABAKIEN BERRI EMAN.

\*2019/19 zenbakiduna: Udalbiltza Partzuergoko 2019ko urteko kuota ordaindu.

\*2019/20 zenbakiduna: Artibai Futbol taldeari eta Markina-Xemeingo esku pelota taldeari 2019 ekitaldiko dirulaguntzak baimendu eta ordainketak agindu.



- \*2019/21 zenbakiduna: 21. Korrika: Ziortza-Bolibarko udalak kilometro bat hartu.
- \*2019/22 zenbakiduna: Wifibolibarko erabiltzaileari (ALB) urteko tasaren zati proportzionala bueltatu, zerbitzuan baja eman duelako.
- \*2019/23 zenbakiduna: BE/2019-005 espedientea: abala bueltatu.
- \*2019/24 zenbakiduna: XXIV Clásica Cicloturista Federico M. Bahamontes proba bertotik pasatzeko ez dagoela eragozpenik.
- \*2019/25 zenbakiduna: VIII Rallye Lea-Artibai proba bertotik pasatzeko ez dagoela eragozpenik.
- \*2019/26 zenbakiduna: Kastinparro Racing Elkarteari 2019 ekitaldiko dirulaguntza baimendu eta ordainketa agindu.
- \*2019/27 zenbakiduna: Simon Bolívar Museoa: Ondarearen Europako Jardunaldietarako Zerutxu Dantza Taldeak aurkeztutako aurrekontua onartu.
- \*2019/28 zenbakiduna: Zeinka-Zearregiko eskoletxeko putzu beltza garbitzeko Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak aurkeztutako aurrekontua onartu.
- \*2019/29 zenbakiduna: Hainbat faktura onartu eta ordainketa agindu.
- \*2019/30 zenbakiduna: Aulestiko Udalari frontoia berotzeko tresna utzi.
- \*2019/31 zenbakiduna: Simon Bolívar Museoa: Museoen Nazioarteko Egunerako Ines Bengoa Ipuin Kontalariak aurkeztutako aurrekontua onartu.
- \*2019/32 zenbakiduna: Izarbidean Elkarteari 2019 ekitaldiko dirulaguntza baimendu eta ordainketa agindu.
- \*2019/33 zenbakiduna: Wifibolibarko erabiltzaileari (JBA) urteko tasaren zati proportzionala bueltatu, zerbitzuan baja eman duelako.
- \*2019/34 zenbakiduna: VI-1099-P matrikuladun ibilgailuari zerga salbuespena onartu ibilgailu historikoa delako.
- \*2019/35 zenbakiduna: Zabalerako bide bazterreko babes hesi metalikoak jartzeko Señalización Lacroix enpresak aurkeztutako aurrekontua onartu.
- \*2019/36 zenbakiduna: Arta, Zearregi eta Muniozeko bideetan hobekuntza lanak egiteko Excavaciones Bergaretxe, S.L. enpresak aurkeztutako aurrekontua onartu.
- \*2019/37 zenbakiduna: II Clásica Lanzero Classic Summer Rally proba bertotik pasatzeko ez dagoela eragozpenik.
- \*2019/38 zenbakiduna: Basotik egurra ateratzeko baimena. BE/2019-006 espedientea.
- \*2019/39 zenbakiduna: Harrera Elkarteari 2019 ekitaldiko dirulaguntza baimendu eta ordainketa agindu.
- \*2019/40 zenbakiduna: Munduzabal Elkarteari 2019 ekitaldiko dirulaguntza baimendu eta ordainketa agindu.



\*2019/41 zenbakiduna: Herri Urrats ekimena antolatu duen Seaska ikastola elkarteari 2019 ekitaldiko dirulaguntza baimendu eta ordainketa agindu.

\*2019/42 zenbakiduna: Hainbat faktura onartu eta ordainketa agindu.

\*2019/43 zenbakiduna: Basotik egurra ateratzeko baimena. BE/2019-007 espedientea.

\*2019/44 zenbakiduna: Ofiziozko baja 1901 espedientea: egungo bizilekuaren gaineko txosten eskaera.

\*2019/45 zenbakiduna: BI-1983-BT matrikuladun ibilgailuari zerga salbuespena onartu ibilgailu historikoa delako.

\*2019/46 zenbakiduna: J-5421-P matrikuladun ibilgailuari zerga salbuespena onartu ibilgailu historikoa delako.

\*2019/47 zenbakiduna: OT/2019-002 espedientea: obra txikia egiteko lizentzia eman.

## 5. ESKARI-GALDERAK.

- Iñigo Uribe zinegotziak galdetu du auzo-bideetako hegalkak aguazilak garbituko dituen traktorarekin. Alkateak erantzun dio momentuz aurreko urteetan egin den modura geratzen dela.

Eta tratatzeko beste gairik ez dagoelarik, alkateak batzarra amaitutzat eman du.

Alkatea,

Alberto Garro Uribe



Idazkaria,

M. Concepción Mallea Madariaga

